



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 17a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatu irratilizentziei dagokienez. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Iruña, Tutereta eta Barañaingo udalen lur ondarea buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin (9. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak 2008ko ekainaren 11n egindako bilan onetsia.

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat ziurtatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritar guztiei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, ulerturik eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak jaso eta gainerako herritarren eskubide berekin gizartearen erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta.

Une honetan aurrerapausoak ematen ari dira premia duten pertsonei zainketak egoki ematea bermatzen duten eskubideetan, baina egia da, halaber, modu efektiboan aitortu behar dela herritarrek eskubidea dutela guztion artean sortzen dugun aberastasunaren zati batean parte hartzeke, eta aberastasun horrek oinarrizko errenta duin baten bitartez iritsi behar duela premia handiena dutenengana.

Objektiboki, Nafarroako Foru Komunitatearen egoera ekonomikoak aukera ematen dio bere gain hartzeko gaixotasunen batengatik edo ezgaitasunen bat izateagatik, eta saiatu diren arren, lan merkatuan sartzetik izan ez duten pertsonek beharrezkoa duten hobekuntza hori.

Artikulu berria. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 1. artikulua honelaxe geldituko da:

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, Nafarroan egoitza duten eta Nafarroan errolatuta dauden herritar guztiei lan bat eta, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean eta bera garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badira, oinarrizko errenta eskuratzea segurtatuko diena, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Artikulu bakarra. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4. artikulua honelaxe geldituko da:

“4. artikulua. Zenbatekoak, epeak eta esleipenak.

1. Oinarrizko errentaren zenbatekoa zehazteko, erlazionatuko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoa –urtero ezarriko da–, dirusarrera propioak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua; zehaztaper hori hurrengo eskalen arabera egingen da, aipatzen den urte bakoitzerako.

2008. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 85.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 105.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 115.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

6 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izan.

2009. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 90.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 110.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

6 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izan.

2010. URTETIK AURRERA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

5 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izan.

Inongo familiak ez du kobratuko oinarrizko errenta moduan lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 baino gehiago.

2. Gizarte gaitako departamentu eskudunari dagokio oinarrizko errenta esleitzea, eta sei hilabeteko epe hori beste horrenbesteko epe batzuekin luza daiteke modu jarraituan, gehienez ere bi urte egin arte.

3. Salbuespen gisa, gizarte gaitako departamentu eskudunaren titularraren foru aginduaren bidez, gaudituz egin ahalko da aurreko idatz-zatian ezarritako laguntzaren gehieneko epea, baldin eta horretarako arrazoi bereziak badaude. Salbuespeneko egoera horietan ezarri ahalko da, halaber, artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritakoa baino ezberdina den zenbateko bat.

Arrazoi berezi horiek eta zenbatekoak erregelamendu bidez ezarriko dira.

6. Oinarrizko errenta esleitzeko gehieneko epea izanen da gizarte zerbitzu orokorren zorroan ezartzen dena, eta laguntza hau prestazio ziurtatuz hartuko da.

7. Minusbaliotasunagatik oinarrizko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzerik ez duten pertsonen ere ziurtatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100era iritsi arte, oinarrizko errenta jasotzen duten gainontzeko pertsonen baldintza berberekin.

Artikulu berria. "Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 5. artikulua honelaxe geldituko da:

5. artikulua. Prestazioa jasotzeko betebeharrak.

5. artikulua. Oinarrizko errenta jasotzeko betebeharrak erregelamedu bidez ezarriko dira, eta gutxienez hauek eskatu beharko dira:"

Letra berria.

"a) Hogeita bost urte baino gehiago eta hirurogeita bost baino gutxiago izatea.

Salbuespen gisa, eta espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, familia unitate bat osatzen duten pertsonak prestazioaren onuradun izan ahalko dira, nahiz eta baldintza guztiak ez bete, baldin eta erregelamenduz zehaztuko diren behar larriko egoeretan badaude. Kasutan, prestazioa ematen duen ebazpenak aski arrazoitua beharko du.

a) Gizarteratzeko eta laneratzeko akordio bat sinatu beharko da, sei hilabete baino gutxiagoko denboraldi batean.

b) Frogatu beharko da Nafarroan jarraian bizi izana eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan, salbu eta eskatzailea gizarte-bazterketa egoeran dagoen familia-unitate bat bada eta adingabeak baditu bere kargu, kasu horretan salbuetsi egin baitaiteke baldintza hori eskatzetik.

2. Gizarteratzeko eta laneratzeko akordioen edukia eta sinatzeko epea erregelamenduz garrantuko dira.”

Xedapen iragankorra.

Foru lege honetako 5.1 artikuluko b) letran oinarritzko errenta jasotzeko Nafarroan bizi izan beharreko epea, 2009ko urtarrilaren 1era arte, hogeita lau hilabetekoa izanen da.

Azken xedapen berria. “Foru lege honen erregelamendu garapena indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteetan egingen da.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egun berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Osasun Batzordeak osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Osasun Batzordeak 2008ko ekainaren 10ean eta 12an egindako bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babeserako eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatzea eta zaintzea.

Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organi-

koko 53. eta 54. artikuluetan gure erkidegoari Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzeko eskumenak aitortzen zaizkio osasunaren eta higienaren arloan, bai eta osasun laguntzarako kudeaketaren garapen exekutiboaren arloan ere.

Bestetik, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, eskumenen esparru horren barruan aldarrikatuak, osasun laguntzaren ororen garatzea ezarri zuen, inor baztertu gabe, Nafarroako herritar guztientzat, 4. artikuluan finkaturiko printzipio hauen arabera: osasunaren kontzeptu integrala, efizientzia, ekitatea, deszentralizazioa, zerbitzu-ematearen kalitatea eta humanizazioa, parte-hartzea, askatasuna eta baliabideen planifikazioa eta erabilera. Zehazki, ekitatearen printzipioak eragina du osasun sistema erabiltzeko baldintzen berdintasuna bermatzerakoan, eta denboraren aldetiko edozein eragozpen saihesteko beharra dakar.

Hala eta guztiz ere, aipatu foru legeak herritarrek osasun zerbitzuak direla-eta dauzkaten eskubideak hartzen eta garatzen baditu ere, beharrezkoa da osasun laguntza espezializaturako eskubidea eraginkor bihurtuko duen arau berriazko bat, laguntza espezializatu hori programatua denean eta ez larrialdikoa; hartara, erantzuna emateko gehienezko epe batzuk bermatu behar dira eta, halaber, Osasunari buruzko Foru Legea eta Ebakuntzetako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio eta jarduketara programa arautzen duen apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legea osatu behar dira. Horrekin, herritarrei ematen zaiz-

kien zerbitzuen kalitatea hobetu nahi da, prozedurari eta gaixoaren duintasunari erreparatuta onargarritzat jotzen diren itxaronaldiak ezarriz. Dena den, aipatu hobekuntzak eginik ere aurreikusitako itxaronaldiak gaintitzen badira, foru lege honek berme gehigarri bat ezartzen du, herritarrei eskatzen duten osasun laguntza segurtatuko diena, bai eta laguntza espezializatu horri buruzko informazio orako eskubidea ere.

Argi dago itxaron zerrendak egoteak berak arazo batzuk ekartzen dizkiela herritarrei, eta egoera hori dela-eta herritarrek sentiberatasun berezia dutela. Horrenbestez, osasun prestazioaren eskakizunei erantzuteko epe egoki bat bermatzea da erabiltzaileak gehien baloratzen dituen alderdi-etako bat; hain zuzen ere alderdi horri erantzun egokia eman ahal diote eta eman behar diote osasun zerbitzuek.

Lege honen helburua da osasun laguntzaren eskaeraren eta osasun zerbitzu publikoen eskaintzaren arteko desorekak konpontzeko bideak ematea, eta Nafarroako herritarrei onartzeko moduko itxaronaldiak bermatzea, eta horretarako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) errespetatu beharreko muga batzuk ezarriko dira.

Foru lege honen bidez, osasun laguntza espezializaturako eskubideaz benetan baliatzea ahalbidetu nahi da, laguntza espezializatu hori programatua eta larrialdietatik kanpokoak den kasuetarako; halaber, osasun laguntza espezializatu horri buruzko informazio orako eskubidea bermatzen da.

Eremu horretan ulertu behar dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduketak, hau da, osasun laguntza espezializatu programatua epe egokian bermatzearen eremuan.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen helburua.

Foru lege honek helburu du osasun laguntza espezializatu programatua eta larrialdietatik kanpokoan erantzunak emateko bermeak ezartzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egin beharreko ebakuntza kirurgikoei, kanpoko kontsul-tei eta proba diagnostikoei dagokienez.

2. artikulua. Onuradunak.

Nafarroan bizilekua duten pertsonak izanen dira foru lege honetan ezarritako bermeen onuradunak. Foru lege honetan ezarritako bermeen onuraduna izateko ezinbesteko baldintza izanen da Itxaron Zerrendan dauden Gaixoen Erregistro-

an, 8. artikuluan aurreikusitakoan, inskribatuta egotea.

II. TITULUA

Erantzuna emateko epeak

3. artikulua. Itxaroteko gehienezko epeak.

1. Nafarroako osasun sistema publikoan laguntza espezializatu programatua eta larrialdietatik kanpokoak behar duten gaixoei ondoren ezarritako epeetan emanen zaie behar duten laguntza:

a) Laguntza espezializatuko kontsultak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 30 eguneko epean egitea bermatzen da.

a bis) Lehenetsunezko kontsultak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 10 eguneko epean egitea bermatzen da.

b) Proba diagnostikoak, programatuak eta larrialdietatik kanpokoak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 45 eguneko epean egitea bermatzen da.

c) Ebakuntza kirurgikoak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 120 eguneko epean egitea bermatzen da. Bihotzeko kirurgiari dagokionez, epea gehienez ere 60 eguneko izanen dela bermatzen da.

d) Ebakuntza kirurgikoak, baldin eta haietan itxaronaldiak ez badu gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik ekartzen: gehienez ere 180 egun.

1 bis. Aurreko idatz-zatian ezarritako epeak egun baliodunetan zenbatuko dira, hau da, igandeak eta jaiegunak kanpo utzita.

2. Ebakuntza kirurgiko programatu eta larrialdietatik kanpokoetan, bermaturik daude Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ematen diren prozedura eta teknika guztiak.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zein prozedura kirurgikok duten 120 eguneko gehienezko epea.

3. Kanpoko kontsulta programatuetan bermaturik egon dira laguntza espezializatuko kontsultak, baldin eta azterketak ez badira, eta betiere azterketa egiteko itxaron beharreko denborak ez badu ekartzen gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik.

Azterketa da gaixo bati patologia jakin baten jarraipena egiteko espezialitate horretan bertan egiten zaiona.

4. Proba diagnostikoetan, bermaturik daude Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egiten diren proba guztiak.

5. Erregelamendu bidez finkatuko dira arestian deskribaturiko modalitateei dagozkien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko prozedurak eta espezialitateak.

6. Osasun laguntza espezializatuaren arloko bermeei buruzko foru lege honetatik kanpo geratzen dira larrialdiko laguntza beharrezkoa den prozesuei aplikatu beharreko prozedurak.

4. artikulua. Zentroa hautatzea.

1. Gaixoeak eskubidea izanen dute laguntza hartu nahi duten zentroa aukeratzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzu propioen sare publikoan.

2. Aurreikusten bada gaixoari ezin izanen zaiola laguntzarik eman aurreko artikuluan aipaturiko epeetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak horren berri eman beharko dio, eta Nafarroako osasun sistema publikoko beste zentro batzuk eskainiko dizkio, edo, ezinezkoa bada, horien orde, osasun zerbitzu publikoarekin hitzarmena duten beste zentro batzuk eskainiko dizkio, erantzuna emateko foru lege honetan ezarritako gehieneko epeak bete daitezzen.

5. artikulua. Berme-sistema.

1. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritako itxaronaldiak gairatzen badira, gaixoak lehentasunezko osasun laguntza eskatu ahal izanen dio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, gaixoak hala eskatuta, berehala eman beharko dio osasun laguntza Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sare publikoko osasun zentroetako edozeinetan, edo, halakoetan ezinezkoa bada, osasun sistema publikoarekin hitzarmena duten zentroetan.

6. artikulua. Bermea galtzeko edo eteteko arrazoiak.

1. Osasun laguntza espezializatuan erantzuna emateko gehieneko epea eten eginen da egoera hori eragin zuen arrazoiak irauten duen bitartean, honako kasu hauetan:

a) Gaixoak eskatuta, baldin eta, justifikatutako arrazoiak alegatuz eta eskaintzen zaion osasun arretari uko egin gabe, ebakuntza kirurgikoa, kontsulta edo proba diagnostikoa atzeratzeko eskatzen badu.

b) Osasun laguntzako prozesua atzeratzea justifikatzen duen arrazoi kliniko bat dagoenean.

1) bis. Osasun laguntza espezializatua izateko bermea galduko da, baldin eta:

a) Gaixoak uko egiten badio bere hitzorduari, edo bertaratzen ez bada, inolako arrazoirik eman gabe.

b) Gaixoak hitzordua atzeratzen badu inolako arrazoirik eman gabe.

c) Gaixoak uko egiten badio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentroa hautatzeko egindako eskaintzari.

1) ter artikulua. Erregelamenduz zehaztuko dira artikulua honetan justifikaziorako aipatzen diren arrazoi pertsonalak.

III. TITULUA

Itxaron zerrendei buruzko informazio sistemak

7. artikulua. Informazio sistema.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hilerio informazioa emanen du Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez, eta herritar guztien eskura jarritako beste hedabide ofizial batzuen bitartez, prozedura kirurgikoetarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu bakoitzean dagoen gaixo-kopuruari eta itxaronaldien batez bestekoari buruz.

2. Osasun sistema nazionalean itxaron zerrendei buruzko informazioa modu homogeneoan tratatzeko neurriei buruzko maiatzaren 23ko 605/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak; betiere, foru lege honetan ezarritakoari eta Nafarroako Foru Komunitaterako gero batean onets daitezkeen ezarritakoari kalterik egin gabe. Itxaron zerrendei buruzko informazioa unean-unean aplikatzekoak diren oinarritzko araudiari eta errege dekretuei lotuko zaie.

8. artikulua. Erregistroa.

Nafarroako itxaron zerrendetan dauden gaixoen erregistroa sortuko da. Erregistro horrek maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua bete beharko du. Itxaron zerrendei buruzko informazioa unean-unean aplikatzekoak diren oinarritzko araudiari eta errege dekretuei lotuko zaie.

Erregistro horretan laguntza espezializatu programatua eta ez larrialdikoa eskatzen duten gaixo guztiak inskribatuko dira, eta betiere Datu

pertsonalak babesteko Legean ezarritakoa bete-ko da.

Antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira, apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legeak ezarritakoa kontuan hartuz; foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kirurgiako itxaron zerrenda programatu-aren buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arau-tzen du.

9. artikulua. Urteko txostena.

Osasun Departamentuak, maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua betetzeko, txosten bat eginen du sei hilean behin itxaron zerrendei buruz, eta egokitzen dituen beste datu batzuk ere jasoko ditu; adibidez, foru lege honek bermaturiko gehienezko epeak gainditutako eta berme-siste-mei atxikitako gaixoen kopurua, eta xede horretarako jarritako zentroak. Txosten hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da. Itxaron zerrendei buruzko informazioa oinarrizko legerian eta unean uneko errege dekretuetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko da.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Erregelamendu bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren itxaron zerrendetako gaixoen erregistroa abian jarriko da.

Bigarren xedapen gehigarria.

Administrazioari aukera emanen zaio Nafarroako itxaron zerrendetako gaixoen erregistroan bere kabuz sar ditzan lege honek indarra hartzen duen unean lehen kontsultarako, proba diagnostiko baterako edo ebakuntza kirurgiko baterako itxaron zerrendetan dauden pertsonak.

Xedapen iragankor bakarra. Ezarpena.

Foru lege hau pixkanaka garatuko da. Nafarroako osasun sare publikoan dauden laguntza espe-zializatuko zentroek beren antolamendu-egitura eta hitzordua emateko sistemak egokitu beharko dituzte, 2008. urtea amaitu baino lehen, foru lege honen 3. artikuluan ezarritako gehienezko epeak bermatu ahal izateko.

Xedapen indargabetzaile bakarra (KENDU-TA).

Azken xedapenetan lehena.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean hartan ezarritako erregelamendu bidezko garapena egin dezan.

Azken xedapenetan bigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatuko irrati-lizentziei dagokienez.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatuko irrati-lizentziei dagokienez"

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2008ko ekainaren 3an eginda-

ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruña, Tuter eta Barañaingo udalen lur ondarea buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Iruña, Tuter eta Barañaingo udalen lur ondarea buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Iruña, Tuter eta Barañaingo udalen lur ondarea buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (9. or.).
- II. Udalaren lurzoru ondarea (9. or.).
 - II.1. Udalaren lurzoru ondarea (9. or.).
 - II.2. Araubidea (10. or.).
- III. Helburuak, norainokoa eta mugak (10. or.).
- IV. Azken ondorioak (11. or.).
- V. Iruñeko Udalaren lurzoruaren udal ondarearen fiskalizazioari buruzko iruzkinak eta ondorioak (11. or.).
 - V.1 Lurzoruaren udal ondarea eratzea eta kontrolatzea (11. or.).
 - V.2 Lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunak, 2004ko ekitaldian eginiko eragiketetatik eratorriak (12. or.).
 - V.2.1 Lurzoruaren udal ondarekotzat hartzen diren ondasunak besterentzea. (12. or.).
 - V.2.2 Aprobetxamenduaren ehuneko hamarra diruz ordezkatzeta (13. or.).
 - V.3 2004an sortu ziren lurzoruaren udal ondareko baliabideen xedea. (13. or.).

V.4 Kontabilitatearen jarraipena (14. or.).

VI. Tuter eta Barañaingo udaletako lurzoruaren udal ondarea (14. or.).

VII. Gomendio orokorrak (14. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak aztertu ditu udalaren lurzoru ondareko osagai diren baliabideen kudeaketa eta kontrola 2004ko ekitaldian, Iruña, Barañain eta Tuterako udaletan.

Autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoek, Espainiako Kontuen Auzitegiarekin batera, fiskalizazio horizontala burutu dute estatu osoan, udalaren lurzoru ondarearen kudeaketaren ikuspegi orokorra ezagutu eta eskaintzeko helburuarekin; izan ere, oso garrantzitsua da lurzoru arautzeko tresna gisa, bai eta toki entitateen finantzaketa iturri gisa ere.

Lan hau Comptos Ganberak onetsi zuen jardueraren programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Iruñeko Udaleko eta Udaleko Hirigintza Gerentzia erakunde autonomo langileei, bai eta Tuterako eta Barañaingo udaletako langileei ere.

II. UDALAREN LURZORU ONDAREA

II.1. UDALAREN LURZORU ONDAREA

Udalaren lurzoru ondarea lurzoruaren merkatuan esku hartzeko tresna bat da, merkatu hori arautzeko, jarduera publikoetarako lurzoru erreserbak sortzeko, eta planeamendua betetzeko xedearrekin.

Udalaren titulartasuneko gainerako ondasunetatik bereizitako ondare apartekoa osatzen du, eta

helburu publiko bati loturiko ondare-ondasunez osatua dago. Zehazki, hauek dira ondasun horiek:

- Lagapenen ondorioz eskuratutako ondasunak, bai lurretan bai dirutan eskuratuak, edo hirigintza-desjabetzapenen ondoriozkoak, eta baita foru lege honen arabera lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidetik etorritakoak ere.

- Hirigintza-planeamenduak hiri lurzoru edo urbanizagarritzat sailkatzen dituen ondare-ondasunak, betiere haien titularra den toki entitateko osoko bilkurak hala erabakitzen badu.

Helburuari dagokionez, udalen lurzoru ondareko ondasunak, hirigintza eta eraikuntza prozesura sartu eta gero, erabiliko dira nolabaiteko babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak eraikitzeko edo interes sozialeko beste xede batzuetarako.

Lurrak besterenduz eta administrazioari zegokion aprobetxamendua eskudirutara bihurtuz lorturiko dirusarrerak erabaliko dira udalaren lurzoru ondarea gorde eta hedatzeko edo honako xede hauetarako:

- Urbanizazio obrak.
- Sistema orokorrak eskuratu eta exekutatzeko.
- Ekipamendu kolektiboak edo udal erabilera publikoko beste instalazio batzuk eraikitzea, baldin eta administrazio publikoek edo beren sozietate instrumentalek sustatuak badira.
- Etxebizitzak zaharberritzeko edo hiri berrikuntzako ekimen publikoko eragiketarako.
- Etkez aldarazteko eta etxera itzultzeko gastuak.
- Eraikinak erosi edo/eta zaharberritzea, babestutako etxebizitzak edo ekipamendu publikoak egiteko.

Lurzoruaren udal ondarearen kontrola gauzatzeko inbentario bereizi baten eta berariazko erregistro baten bidez. Inbentarioan adierazi behar da lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunen izaera lotua eta berezia. Erregistroan jaso behar dira sartzen diren lurrak edo dirua, eta baita hirigintza arloko legedi arautzailean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.

II.2. ARAUBIDEA

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskubidea dauka lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren alorrean.

Lurzoruaren udal ondareak berariazko araudia-
ren bidez arautzen dira; Nafarroako kasuan,

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen bidez, 223. artikulutik 229.era, hain zuzen.

Lurzoruaren udal ondareari 2004an aplikagarri zaion estatuko oinarritzko legedia ondokoa da:

- Lurzoruaren araubideari eta hirigintza antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren 276 1. eta 2. eta 280.1. artikulua.

- Lurzoruaren Araubideari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1988 Legeko 40. artikulua 3. puntua.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hona hemen lurzoruaren udal ondarearen gaineko fiskalizazioaren helburuak:

- Lurzoruaren udal ondarearen osaketa eta kontrol egokia egiaztatzea.

- Lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunak, 2004ko ekitaldian buruturiko eragiketarik eratorriak, aztertzea.

- Lurzoruaren udal ondarearen 2004ko kudeaketa eta erabilera aztertzea, egiaztatuz erabilerak bat datozela Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeekin.

Azterlana burutu da Espainiako Kontuen Auzitegiko teknikarien batzordeak eta autonomia erkidegoetako kontuen auzitegietakoek proposaturiko irizpide teknikoei jarraikiz.

Azterlana 2004. urteari buruzkoa da eta Iruñeko, Barañaingo eta Tuterako udaletan egin da. Hona norainokoa:

1.- Iruñeko Udala: Galdetegi bat igortzea, informazio orokorra jasotze aldera hirigintzaren arloko kudeaketari, lurzoruaren udal ondarearen kontrolari, eta lurzoruaren ondarearen fiskalizazioari eta harekin zerikusia duten eragiketei buruz.

Udal honetan, fiskalizazioa auditoria publikoen printzipioei eta arauari jarraikiz burutu da, eta beharrezkoak diren hautaprobak egin dira azterlan honen helburuei buruzko ondorioak lortze aldera.

Gure lanaren norainokoaren muga izan da zehazki ez ezagutzea Iruñeko Udalaren lur ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideak, ez eta 2004ko ekitaldian saldu edota erabili direnak ere.

2.- Tuterako eta Barañaingo udalak: Soilik galdetgia igorri zen.

Txosten honen ondorioak oinarritzen dira, Iruñeko Udalaren kasuan, eginiko fiskalizaziotik ateratako emaitzetan, eta, Tuterako eta Barañaingo udalen kasuan, berriz, Ganbera honek bidalitako lurzoruaren udal ondareari buruzko galdetegietan udal horiek igorri diguten informazioan.

IV. AZKEN ONDORIOAK

Iruñeko Udalari dagokionez, eta fiskalizazio-lan honetan ezarritako helburuei jarraikiz, hona hemen atera ditugun ondorioak:

Iruñeko Udalak ez du eratu lurzoruaren udal ondarea gainerako udal ondasunetatik bereizitako ondare modura, eta ez du haren kontrol egokirik egiten, inbentarioaren eta erregistroaren bidez.

Horrekin lotuta, udal ondasunen inbentario orokorrean ez dago jasota lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunen izaera bereiz eta loteslea, eta ez da erregistro bat sortu, non idazten diren lurzoruaren udal ondareko sarrerak eta irteerak, hirigintza arloko legerian ezarritako xedeak betetze aldera.

Kontabilitateari buruzko informazio-sistematik ezin dira ezagutu lurzoruaren udal ondarearen osaera eta balioa.

Horrenbestez, ez dakigu zer ondasunek eta baliabidek osatzen duten Iruñeko Udalaren lurzoruaren udal ondarea 2004ko abenduaren 31n.

2004an sorturiko baliabideak, lurzoruaren udal ondarea osatuko luketenak, ondare horretako lursailen besterentzetik eratorriak dira, bai eta udalari eman beharreko hirigintza aprobetxamenduaren ehuneko 10 diruarekin ordezkatzetik eratorriak ere.

Lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunen besterentzea egin da, oro har, hirigintza arloko araudian ezarritako baldintzak beteta.

Iruñeko Udalak Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako erabili zituen 2004an lurzoruaren udal ondareko lursailen besterentzearen bidez lorturiko baliabideak eta administrazioari zegokion aprobetxamendua diruarekin ordezkatzetik lorturikoak.

Aipatu baliabideen eta horiekin finantzaturiko gastuen kontabilitate-jarraipena egiten da gastuen proiektuen eta atxikitako finantzaketaren desbiderapenen kalkuluaren bidez, bai eta diruzaintzako gerakin osoari kentzen zaizkion atxikitako baliabideen bidez ere.

V. IRUÑEKO UDALAREN LURZORUAREN UDAL ONDAREAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRUZKINAK ETA ONDORIOAK

Iruñeko Udalak 2004ko ekitaldian eginiko lurzoruaren udal ondarearen eta honekin zerikusia duten hirigintza arloko eragiketen kudeaketari buruzko fiskalizazioaren ondorioak honakoak dira:

V.1 LURZORUAREN UDAL ONDAREA ERATZEA ETA KONTROLATZEA

2004. urtean Iruñeko Udalean indarrean zegoen hirigintza planeamendurako tresna udal plan orokorra da, 2002ko abenduaren 18an behin betikoz onetsi zena.

Iruñeko udalerrian, hirigintza arloko kudeaketa Hirigintzako Udal Gerentziari dagokio. Gerentzia hau erakunde autonomoa da, eta udalak sortu zuen 1985ean. Erakunde autonomo honi esleituriko eskumenen artean dago lurzoruaren udal ondarearen kudeaketa.

Hirigintza Gerentziak egiten du, programa informatiko baten bidez, etxebizitzetarako erabilera duten udal lursailen kudeaketa. Lursail horiek balioesten dira legeak lurzoruarentzat ezarritako etxebizitza babesturako mugen arabera.

Ez da adierazten lursailak lurzoruaren udal ondareari dagozkion; hori dela eta, identifikaturik ez daudenez, ezinezkoa da lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunen kudeaketa egitea gainerako ondare-ondasunen kudeaketatik bereizirik.

Lurzoruaren udal ondareko lursail guztiak ez daude hala identifikatuta udalaren ondasunen inbentario orokorrean, nahiz eta bertan jasota dauden. Inbentarioan lurzoruaren udal ondarekoak direla zehazten den lursailei dagokienez, soilik bakarkako kontsultaren bidez identifika daitezke, baina ezin da haien balio osoa ezagutu, eta ezin dira haien guztiak identifikatu ere.

2004an ondasunen inbentario orokorrean izandako altek, ondare-lusailei dagokienez, 2.617.825 euro egiten dute. Ezin dugu jakin horietatik zeintzuk dagozkien lurzoruaren udal ondareko lursaili; izan ere, horietan ez da agertzen inongo oharrik esaten duenik lurzoruaren udal ondarekoak direnik.

Udalak ez du lurzoruaren udal ondareari buruzko erregistroa sortu.

Horrenbestez, ez da egiten lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunen eta baliabideen kontrol eta jarraipen egokirik inbentarioaren eta erregistroaren bidez.

Ez dakigu zer ondasunek osatzen duten lurzoruaren udal ondarea 2004ko ekitaldian, ez eta ondare horren balioa ere.

V.2 LURZORUAREN UDAL ONDAREA OSATZEN DUTEN ONDASUNAK, 2004ko EKITALDIAN EGINIKO ERAGIKETETATIK ERATORRIAK

V.2.1 Lurzoruaren udal ondarekotzat hartzen diren ondasunak besterentzea.

2004ko aurrekontuan aurreikusitako lursailen salmentengatik dirusarrerak, guztira 24 milioi euro egiten zutenak, oinarrituta daude saldu beharreko lursailen balorazio teknikoetan oinarritzen ez diren zenbatespenetan.

Lursaila	Azalera	Azken salneurria	Prozedura
6-A Ezkaba	3.986,3 m ² .	1.659.304	Esleipen zuzena
9 Ezkaba	2.690,8 m ²	1.609.913	Esleipen zuzena
9C Polig. P9A Rotxapea	630,1 m ²	1.336.893	Enkantea jabekideen artean, epailearen aginduz.
Buztintxuriko 1.1.E Polig.PA	2.328 m ²	1.147.220	Esleipen zuzena beste jabekideari, epailearen aginduz
6 lursail Belosogoiti	1.500 m ²	1.132.006	Enkantea

Ezkabako 6-A eta 9. lursailak, zuzenean esleitutakoak, Ezkaba-kanala sektoreko nahitaezko desjabetzapen prozesuaren ondoriozko hirigintza-hainbanaketarako proiektutik eratorriak dira, eta etxebizitzetarako erabilera dute.

Bi lursail horien salmenta zuzena bi sindikatu-rekin zerikusia duten bi kooperatibari egin zitzaizen, haiek espresuki eskatuta, babes publiko orokorreko etxebizitzak (97 etxebizitza), kasu batean, eta babes berezikoak (104 etxebizitza), bestean, sustatzeko. Udalaren eta zegokien kooperatibaren eta sindikatuaren artean sinatutako bi hitzarmenetan arautu ziren. Udal Osoko Bilkurak hitzarmen horiek onetsi zituen 2003ko apirilean eta irailean, hurrenez hurren.

35/2002 Foru Legean aurreikusten da lurzoruaren udal ondareko ondasunak irabazi asmorik gabeko laguntza- edo gizarte-entitateei nahiz sindikatu-entitateei zuzenean besterentzea, lurren balioa baino txikiagoa ez den prezioan, baldin eta babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak sustatzen badituzte eta sustapen bideragarria dela bermatzeko moduko eskarmentua eta bitartekoak dituztela frogatzen badute.

Bi lursailen xedea babes publikoko etxebizitzak eraikitzea denez, beren salmenta balioak ez du gainditzen sustapenaren azken salmenta prezioaren %17,5.

2004ko ekitaldian, lursailen salmentagatik lortutako dirusarrerak, guztira, 6.908.450 euro egin zuten. Guztizko zenbateko horretatik, ez dakigu 23.115 euroren truke saldutako lursailak lurzoruaren udal ondarekoak ote diren.

Saldu baino lehenago, udal legelariak lursailen jatorria aztertzen dute. Zalantzarik izanez gero, lurzoruaren udal ondarekotzat jotzen dira, eta hirigintza arloko legerian ezarritako xedeetarako gordezten dira.

2004ko ekitaldiko dirusarrerak, lurzoruaren udal ondarekotzat jotzen diren lursailen salmentagatik, 6.885.336 euro egiten dute, eta ondoko lursailak dagozkie:

Bi kasuetan, salmenta prezioa kobratu zen lursaila eskualdatzeko eskritura publikoa sinatzeko unean; hain zuzen, 2004ko maiatzean eta uztailan.

Ezkabako 9. lursailaren salmentari dagokionez, ez dago jasota kooperatibak irabazi asmorik gabeko entitate sindikal batekin duen harremanaren justifikazioa, ez eta kooperatiba esleipendunak sustapena gauzatzeko dituen esperientzia eta baliabideen egiaztapena ere.

Arrotxapeako P9A poligonoko 9C lursailak eta Buztintxuriko PA poligonoko 1.1.E lursaila sail horien jabekideei besterendu zitzaizkien, agindu judizial bat betetzeko. Lehenengo lursailan, udalak ehuneko 58,1258ko partaidetza zuen eta bigarrean, berriz, ehuneko 29,6232koa.

Bi kasuetan, besterentzea lursailaren beste jabekideak eskatu zuen, eta hasiera batean ukatu egin zen; izan ere, udalak adierazi zuen –eta kasuan kasuko Udal Osoko Bilkuraren erabakian jasota dago– ezinezkoa zela lurzoruaren udal ondareko lursailak partikular bati zuzenean saltzea.

Ondoren, bi lursail horiek zatiezin deklaratu ziren, eta bi kasuetan epaileak erabaki zuen lursailen jabeek osatzen zuten komunitatea desegitea.

9C lursaila jabekideen arteko enkante bidez besterendu zen, 2.300.000 euroren truke. Zenba-

teko horretatik, udalari zegokion bere jabetza-ehunekoaren zati proportzionala, alegia, ehuneko 58,1258. Lursaila 1.190.000 eurotan tasatua zegoen.

Buztintxuriko PA poligonoko 1.1.E lursaila zuzenean esleitu zitzaion beste jabekeari, perituen tasazioaren balioaren truke.

Belosogoiti kaleko 6 lursailak datoz, inbentarioko fitxetan adierazten denez, 2000. urtean onetsi zen Belosogoitiko D unitatearen birzatiketa proiektuaren ondoriozko aprobetxamenduaren ehuneko hamarraren lagapenetik. Lursail horiek enkante bidez besterendu ziren.

V.2.2 Aprobetxamenduaren ehuneko hamarra diruz ordezkatzea

2004an sorturiko hirigintza aprobetxamenduek 106.107 euro egiten dute, eta kopuru hori dator Arrosadiako ARZ-8 banaketa-eremuko borondatezko birzatiketaren ondoriozko aprobetxamenduaren ehuneko hamarraren legezko lagapena diruz ordezkatzetik.

Lursailen lagapena eskudirutara bihurtzea justifikaturik dago ehuneko hamarrari dagozkion aprobetxamenduak ez badira iristen ondoriozko lursailaren ehuneko 15era. Eskudirutan egiten den lagapen hori hirigintza-kudeaketari buruzko hitzarmen batean arautu eta balioetsi zen, 2004ko irailean behin betikoz onetsi zena.

Aprobetxamendu horien prezioaren kalkulua kanpoko arkitekto profesionalak eginiko txostentan oinarritzen da.

Dirusarrera horiek 2004ko urrian sortu eta kobratu ziren, eta udal lurzoruen urbanizazioari atxiki zitzaizkion.

Aztertutako lur berrantolamenduaren ondoriozko hirigintza aprobetxamenduen sarrera ez dago jasota lurzoruen udal ondarearen erregistroan, ez baita halako erregistrorik.

V.3 2004an SORTU ZIREN LURZORUAREN UDAL ONDAREKO BALIABIDEEN XEDEA.

Egiaztatu da udalak 2004an lortu zituen baliabideak (lursailen salmentagatik, lurzoruen udal ondarekoak izan ala ez, bai eta hirigintza aprobetxamenduak dirutara bihurtzeagatik) bideratu direla Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetara.

Halaber, xede horietara bideratu dira lurzoruen udal ondarearekin zerikusirik ez duten hirigintza eragiketetatik eratorritako baliabideak, hala nola udalak 2004an besterendutako aprobetxamendu-unitateen transferentziak, 573.393 euro egin zutenak, eta Ezkabako poligonoan desjabetutako eta desjabetzapena liberalizatzeari buruzko udal erabakira atxiki ez ziren lursailengatik 741.669 euroko kalteordaina.

2004ko ekitaldian, udalak aprobetxamendu-unitateak saldu dizkie eraikitze-asmoei loturiko lursailen titular diren partikularrei. Aurkezturiko eraikitze-proiektuei zegozkien hirigintza aprobetxamenduek gainditzen zituzten planeamenduak ezarritakoak, babes ofizialeko etxebizitzetarako erabileratik etxebizitza libreetarako erabilerara aldatu zelako. Hori dela eta, lizentzia eman ahal izateko beharrezkoa izan zen gehiegizko aprobetxamendua eskuratzea.

Ondoko taulan agertzen dira 2004an lortutako lurzoruen udal ondareari dagozkion dirusarreren eta hirigintzako beste dirusarrera batzuen xehakapena, bai eta horien xedea ere:

BALIABIDEAK	ZENBATEKOA	XEDEAK	ZENBATEKOA
Lursailen salmenta	6.908.450	Ondareko lursailak	1.879.775
Hirigintzako aprobetxamenduak eskudirutan	106.107	Iturramako gizarte etxea	4.664.158
Hirigintzako aprobetxamenduen salmenta	573.393	Caparrosoko txaleta	316.505
Hirigintzako kalteordainak	741.669	Arrotxapeako haur eskola	150.271
Desbideraketen itzulketa	6.562	Aranzadiko eraikin soziala	1.325.472
BALIABIDEAK, GUZTIRA	8.336.181	XEDEAK, GUZTIRA	8.336.181

V.4 KONTABILITATEAREN JARRAIPENA

Udalaren kontabilitateak ez du informaziorik ematen lurzoruaren udal ondarearen osaketari eta balorazioari buruz.

Lurzoruaren udal ondareko baliabideei dagokienez, udalak lursailak besterentzeagatik eta hirigintzako aprobetxamenduaren ehuneko hamarraren lagapena diruz ordezkatzegatik 2004an lortutako dirusarreraren kontabilitatearen jarraipen egokia egin du, baita dirusarrera horiekin finantzaturiko gastuen kontabilitatearena ere.

Lurzoruaren udal ondareko baliabideekin finantzatutako gastuak gastuen proiektuetan jasotzen dira. 2004ko ekitaldiaren amaieran, gastuen urteko betetzearen desbideraketak kalkulatu dira eta behar den bezala egotzi zaizkie aurrekontuaren emaitzari eta diruzaintzako gerakinari.

Gastu zehatzei egotzi gabeko lurzoruaren udal ondareko baliabideak berariazko modulu baten bidez kontrolatzen dira kontabilitatearen aplikazio informatikoan, eta gastuen proiektuetara aldatzen dira, beren aplikazioari buruzko erabakiak hartu ondoren. Horiek islatzen dira udal aurrekontuarekin batera doan inbertsioen eranskinean. Halaber, diruzaintzako gerakinean ere jasotzen dira; hain zuzen, diruzaintzako gerakinaren baliabide atxiki-en kontzeptuan.

VI. TUTERA ETA BARAÑAINGO UDALETA-KO LURZORUAREN UDAL ONDAREA

Udal hauek egiten duten lurzoruaren udal ondarearen kudeaketari buruzko ondorioak oinarritzen dira udalek beraiek igorritako informazioan, Comptos Ganberak ez baititu fiskalizatu.

Barañaingo Udalak 1990eko abenduan onetsi zuen hirigintza antolamenduko plan orokorra.

Tuterako Udalak 1991ko maiatzean onetsi zuen hirigintza antolamenduko plan orokorra.

Udal hauetako batek ere ez du eratu lurzoruaren udal ondarea gainerako udal ondasunetatik bereizitako ondare gisa.

Ondasunen inbentario orokorrean ez dago jasota lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunen izaera lotua eta berezia.

Udalek ez dute sortu lurzoruaren udal ondareari buruzko erregistroa.

VII. GOMENDIO OROKORRAK

Hona hemen Comptos Ganberaren gomendioak Iruñeko, Tuterako eta Barañaingo udalentsat, lurzoruaren udal ondarearen eratzeari, kudeaketari eta kontrolari dagokienez:

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistro bat sortzea, eta bertan jasotzea sartzen diren lurrak edo dirua, eta baita Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen kudeaketa egitea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta udal ondasunen erregistro orokorrean adieraztea eta zehaztea zeintzuk diren lurzoru-ondarekoak, baita hirigintza arloko legerian ezarritako xede-ei lotuta daudela ere.*

Txosten hau auditore M^a. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	